

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gaurtik aurrera Nafarroako Jauregian bisita gidatuak egiteko plazak erreserba daitezke

Doako bisitak azaroaren 25etik abenduaren 2ra egingo dira, eta berrikuntza moduan musika-emanaldi bat ere izango da

Lunes, 17 de noviembre de 2014

Gaur, astelehenetik aurrera, Nafarroako Jauregian [doako bisita gidatu](#) parte hartzeko plazak erreserba daitezke. Bisita horiek azaroaren 25etik abenduaren 2ra egingo dira, 2014ko Nafarroaren Eguna dela-eta programatutako ekitaldien barnean.



Tronuko Aretoaren irudia.

Aurten ibilbidearen barnean musika-emanaldi bat egingo da Kaperan berrikuntza moduan, eta kontzertua Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko ikasleek emango dute.

Bertaratu nahi duten interesdunek plaza erreserba dezakete 948 012 012 eta 012 telefono-zenbakietara dei eginez (deia 0,34 euro) 08:00 etatik 19:00etara, astelehenetik ostiralera.

Eraikin ospetsu hau eta bertako harribitxi artistiko nahiz historikoak ezagutzeko aukera bikaina da.

Bisiten edukia

Bisitak 30-35 pertsonen osatutako taldeetan egingo dira, gidari batek zuzenduko ditu, eta 75 minutuko iraupena izango du. Interesdunek bisita euskaraz egitea ere eska dezakete.

Ordutegiak honako hauek dira:

- Lanegunetan, 17,00 h., 17,30 h. eta 18 h.
- Jaiegunetan (larunbata, hilak 29 eta igandea, azaroak 30), 11,00 h., 11,30 h., 12,00, 12,30 h, 18,00 h eta 18,30 h.

Bisita honako era honetan banatuko da: sarrera-bideo bat ikusiko da, eta Lehendakarien Aretoa, Areto Berdea eta errege-erretatuena, Lehendakaritzako Bulegoa, Bilkuren Aretoa, Kaperana eta Tronuaren Aretoa bisitatuko dira. Azken leku horretara egindako bisitan, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko ikasle-talde batek musika-pieza batzuk interpretatuko ditu, [esteka](#) honetan ikus daitekeen programaren arabera.

Bisita egiteko, beharrezkoa da NAN txartela eramatea eta bisita hasi

baino lehen Karlos III., 2. zenbakiko atean izatea. 18 urtetik beherakoak heldu batekin agertu beharko dira.

Jauregiko zenbait tokik zaintza bereziak behar dituztenez, ezin da takoi meheekin ibili. Gurpil-aulkian edo aulkitxoan sar daiteke, ordea. Arqazkiak ere atera daitezke flash-a erabili gabe.